

ZER BERRI SAPAKO LANGILEAK ITXIERAREN AURKA
KULTURA IÑAKI IÑURRIETAREN *KUSKUE* TANDEN ELEBERRIA



pipilean

Soraluzeko Hamabostekaria 88. alea 2004ko apirilaren 19a



Don Ascensio apaiz eta organista sena



Tornileria-estanzazioa
eta
extruzioa hotzean

GOL

GOL industriak S.A.
Sagar Erreka, 19 45 PK
Telefona: 34 943 75 21 00
Faxa: 34 943 75 17 12
20590 SORALUZE

Iragarlearen txokoa: Txurruka jatetxea

San Ignazio Auzoa- Telefona: 943 75 15 81

“Gure berezitasunak bildotsa burduntzixan eta babak dira.”

Noiz eta zergaittik zabaldu zeduen jatetxia?

Oin dala 32 bat urte inguru zabaldu genduan, baserrixak ez zeban emoten nahikua eta. Orduan goiko jantokixa bakarrik zan.

Zenbat pertsonak egiten dozue lan jatetxian?

8 pertsonak egiten dogu lan, danak etxeak.

Ze moduzkua izan zan hasieria?

Hasieran ez genduan bazkari edo afaririk eskaintzen, ermitara etortzen ziranendako saldia, txorizua, bokadilluak eta holako gauzak. Gero handitzen jua ginan, hasieran goiko jangelia bakarrik zeguan, baina sei urtera behekoa egin genduan eta gaur egun daguan moduan geratu zan jatetxia.

Zenbat jendendako lekua dago?

Danera 115 pertsonandako lekua daukagu, 70



beheko jangelan eta 45 goikuan.

Zer eskeintzen dozue?

Aste barruan menua egoten da, urte mordoxka bat daroiagu menu berdina, eta aparte kartia daukagu.

Berezitasunen bat?

Bildotsa burduntzixan eta babak, betidanik egin dittugu. Honek enkarguz egitten dira. Poliki poliki gauza barririk be sartzen goiaz.



Itxaropenaren geltokia

MIKEL SANTIAGO ARIZAGA

Egun gogorra izan zen martxoaren hamaikagarrena. Sarraskia, tristura eta izua Madrilén. Euskal Herrian ere, modu berezian bizi izan genuen egun hori, batez ere ezinegenez, horrelakorik nork burutu izango zuen jakin asmoz. Ondoren etorriko zen agerian zegoenaren aurrean erabilitako gezurraren aurkako amorrua.

Amorru horrek azken bultzada eman zion PPri Gobernutik kanpo gelditzeko. Jakinekua da Espainiar estatuan inor ez dela boterera heltzen bere merituz, boterean denaren meritu gabeziagatik baizik. Hala ere, zortzi urteko giro itogarriaren ondoren, badirudi arnasa hartu ahal izan dugula, Hegoaldean bizi garen euskal herritarrok behintzat.

Itxaropentsu egon behar dugu, beraz, agintea Alderdi Sozialistak izango duela Espainiar estatuan datozen lau urteotan? Egia esan, ez dakit zer erantzun. Nik itxaropentsu egon nahi dut, hobe esan, itxaropentsu egoteko beharra sentitzen dut. Luzaroan gabiltza ilunpean gure Herrian, argia non eta noiz azalduko ote zaigun zain. Egia da, lehen ere izan zirela agintean, eta ikusi ahal izan genuela zer egin zuten Euskal Herriko egoeraren aurrean. Baina azken urteotan jasandakoaren ondoren, jarrera aldaketa txiki bat ere eskertzekoa izango da. Horrek erakusten du pairatu behar izan dugunaren tamaina.

Hala ere, itxaropenak beste alde batetik ere etorri beharra dauka geurera. Aberri Eguna ospatu berri dugu abertzaleok, berriro ere banaturik. Euskal Herri batu, euskaldun eta independentea nahi dugunok, ezin al diogu itxaropenari ate bat zabaldu? Elkarlan horri ekiteko borondatea behar da, eta baita, horretarako oztopo guztiak gainditzeko asmo sendoa, izan ere armak behin betiko isiltzeko ordua aspaldi ailegatu baitzen geurera.

Nire ustez, bi oinarri sendo izan behar ditu konponbiderako bideak: bata bizitzari zor zaion errespetua da, beraz, indarkeriarik eza, eta bestea euskal herritarren borondateari zor zaion errespetua. Bide horretatik, asko izango gara bat egingo dugun euskal herritarrok. Eta, bide politikoak soilik erabiliz, elkarriketaren bidez eta inor baztertu gabe, konponbide bat aurki diezaiokegu gure arazoari, bestea errespetatuz eta bakoitzaren izaerari uko egin gabe. Izan ere, honela defendatzen den ideia oro baita zilegi.

Bide honetatik etorriko da aro politiko berria Euskal Herriarentzat. Denon artean zabaldu behar diogu ate bat itxaropenari. Oraintxe dugu aukera. Orain egiten ez badugu, auskalo noiz izango dugun berriz ere tren hartzeko parada. Baldin eta tren gure geltokitik berriro ere pasatzen bada.

Telegrapak

Aspaldiko!. Stop. zer moduz Aste Santuan?. Stop. ondo?. Stop. gu hemen geldittu gara. Stop. herrixan. Stop. lasai . Stop. meza eta prozesio-tan. Stop. zihero kristaututa. Stop. ez, hau ez da Herria 2000 aldizkaria. Stop. baina ez pentzau, ez gara hain ateuak be. Stop. badaukagu fede pixkat. Stop. nahiz eta kendu ere egiten doskuen batek baino gehixaok. Stop. SAPAko langilieri moduan. Stop. jubilaziño plan edarra!. Stop. armak hartzeko dirala entzun dogu. Stop. kañoi eta antiaereoekin defendituko ei dabe arma fabrika. Stop. animo! . Stop. lana seguru izango dozue behintzat. Stop. ez dago bildurrik!. Stop. azkenaldixan goraka doian sektoria da. Stop. langabezixan kontrara. Stop. Soraluze da bailarako tasa baxuena daukana. Stop. "lan" asko sortu da azken urtietan. Stop. ez oso duina baina tira... Stop. ez kexatu!. Stop. txarrago dare Pedro Jose eta bere senidiak . Stop. kexatzen dira. Stop. sufritzen dabe. Stop. emoten dotse egurra. Stop. baina guri bost!. Stop. hori bai. Stop. Aberri egunak nunnahi!. Stop. ugari. Stop. Pil-pileanen diruen moduan. Stop. abundante. Stop. sobran. Stop. datozela auditoriak. Stop. ogasun inspektoriak. Stop. faktura eta papeletik ondo gare. Stop. en fin!. Stop. galdara y topin!. Stop. Jai Batzorde on bat sortu deila. Stop. Inñurrietak saldu deixala asko. Stop. eta Akelarria maizatzen 8xan Hirukurutzetan!



Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkartea

Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Sorluze.

Telefonoa 943 75 13 04

comunidades.kzgunea.net/PilPileanKulturaElkartea/EU
pilpilean@euskalnet.net

Erredakzio burua: Egoitz Unamuno

Erredaktoreak: Eguzkiñe Aldazabal, Enara Agirre, Gurrutze Ariznabarreta, Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan, Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Eneko Beretxinaga, Gorka Salaberria, Egoitz Unamuno eta Arianne Unamuno.

Publizitatea: Ugaitz Catalan (943 75 13 04)

Logotioa: Jon Gabilondo
(943751304 tel.)

Banaketa: Pil-pilean **Ekoizpena:** 1.850 ale

Inprimategia: Gertu Koop.

Azala: Pablo Galarraga

Diseinua eta Maketazioa: Aitor Madrid

I.Z.K.-a: G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORLUZEKO
UDALA



EUSKO
JAURLARITZA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA



Don Ascensio Ezoziko Ama
abesbatzarekin.

Zorion agurrak



Eider Varela
Apirilaren 22xan
21 urte
ZORIONAK!!
Muxu asko!
ja,ja, ja!
Lagunen eta
etxekuen partetik.



Iker Perez
Martxoaren 27xan
ZORIONAK
POTTOLO!
Segi orain arte
bezain alai eta
txintxo. Muxuak.
Etxekuen partetik.



Nerea Alvarez
Apirilaren 8xan
ZORIONAK
PRINTZEZA
Ondo ondo pasa
eta muxu haundi
bat.
Etxekuen partetik.



Sabin Mendizabal
Apirilaren 11n
25 urte
Gure napar txoriari
ZORIONAK!
Aitatxo, amatxo eta
lontxuk.



Xabier Elizburu
Martxoaren 29xan
19 urte
ZORIONAK
Egun zoragarri bat
pasau deizula.
Asko maite zaitu-
gu.
Etxekoen partetik.



Lorea Ochoa
Apirilaren 18xan
ZORIONAK !!
Ondo ondo pasau
eta txintxua izan.
Muxu haundi bat.
Gurasuen eta
anaiaeren partetik.

Marisa Delarosa eta Lucia Reglero
Apirilaren 4an
ZORIONAK!!!
Mila muxu eta urte askoan zoriontsu
izan zaitezte!
Ainhoa eta Rosiren partez.

Pisu bat salgai SORALUZEN
Garaje eta guzti. Harremanetarako,
deitu 656780748 telefonora.
(Bakene)

jaiotakoak

Beatriz Romero Paredes

Maddi Plata Arizaga

ezkonduek

Iakes Elgeta eta Ainhoa Arreitunandia

hildakoak

Maria Gabilondo Gorrotxategi

Balentin Beretxinaga Irazabalbeitia



JARDUERAK

Gazte kooperanteak

Eusko Jaurlaritzak Euskadiko gazteria lankide 2004 programa antolatu du, 20 eta 31 urte bitarteko gazteei zuzenduta. Ekimen honen xedea Euskadiko gazte-riari garapenerako lankidetzaren arloko ekintzez jabetzen laguntzea da. Informazio guztia www.gazteukera.net helbidean aurkitu daiteke, "Aisialdia eta kulturaren" klik eginez. Epea: apirilak 25

Euskal Udalekuak

Abaigar, Bernedo, Goñi eta Urdirotz-en 17 urtera arteko umeentzako udalekuak antolatu dituzte uztailean eta abuztuan. 9, 10, 14, eta 16 eguneko txandak. Txanda guztiak euskaraz. www.euskaludalekuak.org

Udalekuak

Zestoako Sastarrain Baserri Eskolak 2004ko udarako udalekuak antolatu ditu 8-14 urte bitarteko haurrentzat. Egonaldiak 7 edota 10 egunekoak izango dira, abuztuan eta irailean zehar, eta euskarazko zein ingelerazko txandak daude. www.sastarrain.com

JARDUERAK

Laburmetraiak

Sestaoko Udalak bideoz egindako laburmetraien lehiaketa antolatu du. Bertara 18 urtetik gorako sortzaileak aurkez daitezke. VHS formatuan eta 29 minutu baino gutxiagoko iraupeneko laburrak. Erabilitako baliabide teknikoiei baino, garrantzi gehiago emango zaie originaltasunari eta sormenari. 1.500 euro saritan. Epea: ekainak 1

TXOKO KAFETEGIA



Kafe ederra hartzeko txokorik onena!

Kalebarreri 22 beheak. telf: 943751789

SAN ANDRES

Iturgintza



*Iturgintza, Gasa, eta
Berogailuak
Sukaldeak eta bainuak*

Errebal kalea 2 beheak
Tfnoa 943 75 16 46

JAVIER ALONSO ZELAIETA

434 ZENB.KOL

HORTZ KLINIKA

MEDIKU ESTOMATOLOGOA



ATXURI 1-1. ESK TELF. 943 751613

Kiru Muntaiak S.L.

Blas Elizburu Kortabarria

Sukalde, enpotratu
eta tarima flotanteen instalazioa eta salmenta.

Amillaga, 5 20750 Bergara
Tfnoa 943 75 13 12
Eskuko tfnoa 615 70 27 65



Zer irizten dotsazu?

Liburuzain moduan 22 urte egin ostean, apirilean jubilatuta da Arantza Gabilondo. Oposizio publikoak egin bitartean, Udalak administrazio laguntzailea aukeratzeko osatutako lanpoltsako pertsona bat jarriko du. Liburutegira joateko joera handia dago herrian?

Liburutegira joateko ohiturarik badaukazu? ze liburu mota gustatzen jatzu irakurtzia?



Juan Mari Altuna
71 urte jubilatuta
Nik asko irakurri izan dot eta etxian liburu asko ditut. Ni, oin jubilatuta naguanetz, asko juaten naiz, ze liburuak oso garestiak dira erosteko. Gehixen irakurtzen dotena nobela historikua da eta poesia bebai. Liburuzain barriak izan bihar dau pertsona bat asko irakurri dabena eta han egoteko balixo dabena.



Soco Rubierte
65 urte etxeoandria
Ohitura haundixa daukat irakurri eta liburutegira joateko. Gehixen gustatzen jatazenak nobela erromantikuak dira. Liburuzain barriak, disziplina euki bihar dau umiekin, ze askotan zaratia etaratzera bakarrik juaten dira. Asko irakurtzen dabena be izan bihar dau, jendiari liburuak gomendatzeko.



Garazi Arizaga
14 urte ikaslia
Gutxitan juaten naiz eta juaten naizenian ondo pasatze-ra noia. Ordezkuak nere ustez, Arantza baino jasanberagua izan bihar dau. Gehixen gustatzen jatazen liburuak bildurrezkuak dira.



Iñaki Arribillaga
14 urte ikaslia
Oin gutxiago irakurtzen dot baina noizbehinka juaten naiz. Normalian eskolako lanak egin edo informaziñua bilatzeko. Arantxan partez sartzen danak bere modukua izan bihar dau, serixua eta liburuez dakixana.



Jon Errazu Sasieta
21 urte ikaslia
Aspaldixan ez naiz izan. Ez jata bape gustatzen irakurtzia. Neretako ordenadoriak falta dira liburutegixan, modernizatu egin bihar da. Arantxaren partez sartzen danak Soralezetarra izan bihar leuke eta liburuez asko dakixana.



Maialen Elizburu
23 urte ikaslia
Azkenalidixan juaten naiz baina ikastera. Normalian unibertsitateko liburutegitik hartzen ditut bihar dittuten liburuak. Poesia irakurtzia gustatzen jata. Arantza ordezkatzeko, lehenik eta behin eskeintza publiko bat egin bihar leuke Udalak.

**Kontulan
Aholkularitza S.L.**

**Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
aseguruak**

Santa Ana, 13 - 1 ezk.
Tlfonoa: 943 75 17 82

20590 Soraluze
GIPUZKOA

GILA TABERNA

Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik

**Gosarixak eta
pintxo
goxo goxuak !!**

Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34



P. J. Etxeberriak 15 urte gartzelan 3/4ak orain bi urte beteta izan arren



Joan larunbatean, Pedro Jose Etxeberria preso soraluzetarraren askatasuna eskatzeko ekitaldia burutu zuen Askatasunak Plaza Barrixan. 15 urte daramatza Pedro Jose Etxeberriak gartzelan eta orain bi urte ezarritako gartzelaldiaren hiru laurdenak bete zituen arren ez diote baldintzapeko askatasunik eman. Etxeberria, Valdemor, Carabanchel, Alcala, Herrera, Cuenca, Malaga, Valencia, Ibiza eta Mallorcako espetxeetan izan da eta gaur egun, Castelloko gartzelan dago.

Ekitaldian, Pedro Joserren baldintzapeko askatasuna aldarrikatzeaz gainera, sakabanaketa politika salatu eta senideei omenaldia egin zieten.

Udalak eta Pil-Pilean Kultura Elkartek hitzarmena sinatu dute

Joan zen apirilaren 5ean, Soraluzeko Udalak eta Pil-pilean Kultura Elkartek, elkarlanerako hitzarmena sinatu zuten. Hitzarmenean, "Udalak Pil-pilean Kultura Elkarte herrian euskara eta euskal kulturaren alde lanean diharduen elkarte delatzen eta horretarako hainbat proiektu martxan jarri eta urtean zehar hamaika kultur jarduera antolatzen dituela" aitortzen du. "Pil-pilean Kultur Elkarte, inolako irabazteko asmorik gabekoa izanik, egiten duen lan eskergari behar bezalako tratamendua ematen jarraitzea eta bide batez Elkartearen geroa ziurtatu eta sendotzea" beharrezkoa dela adieraziz.

Udalak, aurrekontuaren % 34,49ko dirulaguntza emango dio Pil-pilean elkarteari, Euskara eta Kultura batzordearen aurrekontutik, 24.000 eurokoa. Eta hitzarmen hau datozen lau urteetan berrituko da bi aldeetako batek



kontrakorik adierazten ez badu.

Elkarteko ordezkariak gustora azaldu dira hitzarmenarekin, "elkartearen jarraipena eta egonkortasuna ziurtatzeko lagungarri izateaz gain, Udalarren eta elkartearen arteko harremana normalizatuko duelako". Horretaz gain, "beste diru iturri batzuekin batera elkartearen jardunaren finantziazioa ziurtatzeko balioko du", orainarteko egoera larria arinduz. Zorionak!

Soraluzen langabezi tasa baxuena %5arekin

Debegesak jakinarazi dituen datuen arabera, joan zen urtean Soraluze izan zen, Mallabiarekin batera, Debarreneko langabezi tasarik baxuena izan zuen herria, % 4,9ko tasarekin. Debarreneko herrien batzbesteko tasa %6,42koa izan zen eta Gipuzkoakoa berriz %7,3koa. Azken bost urteetako datuei begiratu ezker, langabezi tasa ia erdira jeitsi da herria, 1998an %8,05ekoa zen eta.

Boliviarako material bilketa

Soraluzeko parroko misioetako taldeak, Boliviarako materiala batzeko kanpainari ekin dio apirilean. Era guztietako materialak hartzen dituzte; toailla, jabo, aterki, beroki, eskolako material, oinetako, benda e.a. Horretarako astegunetan, goizeko 11etatik 12etara bitartean Abadetxeko lehenengo solairuan dagoen parroko lokalean hartzen dituzte euren laguntza eman nahi duten guztiak.

Herri ikastetxeko jolastokia eraberrituko du Udalak

Hilabete batzuetan konponbidearen bila ibili ostean, apirilaren 1ean Udaleko eta Jaurilaritzako Hezkuntza ordezkariak Donostiak egin zuten bileran, jolastokia eraberritzeko erabakia hartu zuten. Hitzartutakoaren arabera, jolastokiko euspen-horma eta lurra konpontzeko lanak Udalak egingo ditu aurtan eta datorren urteko aurrekontuak egiterakoan, jolastokia berritu eta estaltzeko diru-kopuru jakin bat gordetzeko konpromisua hartu du. Diru kopuru horrek, finantziarioaren %40a estaliko luke eta gainerakoa EULEk hezkuntza alorreko eraikinen berrikuntza lanetarako eskeintzen dituen dirulaguntzen bitartez finantziatuko litzateke. Joan zen apirilaren 5ean Udaletxean egindako bileran jakinarazi zien Udalak hitzartutakoaren berri Eskola Kontseiluari.

Inersoko bidaietan izena emateko epea

Inersoko bidaietan izena emateko epea zabalik dago dagoeneko. Urtero moduan, Iberiar Penintsulan edo Balearetan 8 edo 15 egun igarotzeko eskeintza egiten dute. Interesatuak, Itxaropena jubilatuen egoitzan inprimakiak jaso eta beteta aurkeztu behar kodituzte maiatzaren 10a baino lehen.



Aberri eguna
herrian

"Herri Bat gara. Independentzia!" lemapean, Udalbitzak egindako deialdiari jarraituz, apirilaren 11n Aberri eguneko ekitaldia egin zen Plaza Barrixan. Aureskua, bertsoak eta idatzi baten irakurketa egin ziren..

SAPAKo langileak lantegiaren itxieraren kontra



SAPAKo langileek aho batez esan diote ezetz, Enpresako Zuzendaritza Batzordeak hartutako erabakiari.

SAPAKo langileek, Zuzendaritzak lantegia Andoainera aldatzeko hartu duen erabakiaren aurrean, euren eza-dostasuna adierazi dute azken asteotan. Soraluze alderdi politiko gehienekin egin dituzte bilerak eta ondorengo idatzia ere kaleratu dute; "SAPAK XX. mendean hasieran ekin zion bere ibilbideari nahiz eta XIX. mendean ere lan egin zen beste batzuen babesean. SAPAK, Andoaingo lantegia inauguratu zenean jotzen du gailurra ia mila langileekin eta era berean Soraluze lehenengo familien ihesaldia ere hasten da eta baita Soraluze lantegiaren gainbera ere.

Sapa betidanik jo izan da eredu-garritzat eta Deba eskualdearen ikurtzat eta baita estatu mailan ere, produktio bereziengatik, gehienbat artilleria materiala, hala nola, obus kainoi antiaereo, gerrako karroen trasmizio eta abarregatik.

1985. urtean Aperribai familiak hartzen du jabegoa, jatorriz Debakoa denak, eta ordutik utzikeria eta baster-

"Lege aldetik egin dezaketen arren, moralki zigor handiegia iruditzen zaigu. "

keria izan da nagusi Soraluze lane-gian. Bien bitartean Andoainen, be-arrezkoak diren lan guztiak egin dituzte, maila handiagoa emanez, horrela, Soraluzekoa hain egoera tamalgarrian utzita, bisitariei erakusteko ere lotsaz daudela. Kontuan hartuta, hau hirugarren belaunaldia dela eta azkenengo kontratua 1977an egin zela...

Azkenengo hiruzpalau urteetan egindako inbertsioak unean uneko produktzio eskakizunegatik egindakoak izan dira.

Joakin Aperribai jaunak beti esan du Deba eskualdeko osotasun industrialaren aldekoa dela; orain bapatean Soraluze lantegia ixtearekin dator eta 50 familia Andoainera eramatearekin, horrek dakarren buruhaustearekin, arazo familiarrekin eta pizten duen gizarte-

pizten duen kezkarrekin, langileen adinaren batazbestekoa ia 50 urtekoa baita.


Soraluzeko lantegia baldintza ego-kietan jarri eta lantegiarentzat funtzionalagoa izan dadin, eraikinaren okupazioa txikia denez, bere azalera osoaren hiru zati berkalifikatzea bururatu zaio aldaketak finantziatzeko asmoz. Azterketa teknikoa Soraluze lantegiaren udal-txak egin du, zeinak ondorioztatzen eta aholkatzen duen etxebizitzak eraikitze-ko aukera dagoela hiru zati horietako bakar batean.

Egoera honetan eta hori aitzakia tzat hartuz, ixtea onartzen du.

Lerro hauen bitartez, Langileen Asanbleak esan nahi diogu Aperribai leinuari, lege aldetik egin dezaketen arren moralki zigor ankerregia iruditzen zaigula eta prezio hori ordaintzen ari gara dagoeneko."

Lantegiko zuzendaritzak adierazi digunez, "hartu beharreko erabaki zaila izan da" eta datorren urrirako, produktio gunea Andoainera eramango da.

ELIZPE



h o r t z k l i n i k a

Elizburu, 3 behea
9 4 3 7 5 2 5 6 7
20590 Soraluze

JABIER ALBERDI

HARATEGI
ARTISAU ERARA



ESPEZIALIZATUA

KALITATEKO EUSKO LABELA DUTEN
PRODUKTUETAN.



KALITATEA

Errebal kalea 24
Tfnoa 943 75 19 32



Don Ascensio, apaiz eta organista nuarbetarra

Aste Santuko kristau giroak kutxatuta, Sorluzen ia berrogeitamar urte egin zituen sotanadun apaiz mitiko eta berezi baten bizitza gainbegiratu eta bergogoratu nahi izan dugu errepor-tai honetan. Sorluzetar gehienek gogoratuko duten Don Ascensio zena-rena.

Ascensio Gurrutzaga Azpeitiko Nuarbe auzoan jaio zen, 1918ko maiatzaren 5ean. Bere lehen ikasketak Nuarbeko herri eskolan hasi zituen eta beranduago, Azpeitiko Anaia Maristen eskolan jarraitu zuen ikasten. Hamairu urte zituela, Nuarbeko elizan armoniojolea falta zela eta, aitak Azpeitiko parrokiara bidali zuen, solfeoa, pianoa eta organua jotzen ikasi zezan. Baita ikasi ere. Hamairu urterako Ascensio armonioa jotzen zuen Nuarbeko Elizan. Beranduago, 1935ean 17 urterekin, Bilbora joan zen, bertako zentru baten organua jo eta solfeoa erakustera. Ikasi ere egin zuen Bilbon, bertako Kontserbatorioko eskolak jaso eta maila handiko organu kontzertuak entzunez.

“Musikaren alorrari dagokionez, Ascensio Sorluzen egindako lana egundakoa izan zen.”

1940an 22 urterekin apaiz izateko ikasketak hasi zituen Gasteizen. Ikasketa Teologikoak egiteaz gainera, musika formazioa ere jaso zuen. Gasteizko Apaiztegiko Kapila Nagusiko organista ere izan zen eta denak harritu zituen, piezarik zailenak ere inork baino hobeto jotzen zituelako.

1951an, apaiz ordenatua izan zen Donostian, beste hogeitabi ikaskiderek batera (tartean, obispo izango zen Setien). Nuarben lehen Meza eman ostean, Sorluzera zuzendu zuten, eta urte bereko irailean iritsi zen geroztiko bizitza osoa pasatuko zuen herrira. Sorluzeko Agustindarren Santa Anako konbentuko kapelau izan zen, lekaimiak 1975ean Astigarragara joan ziren arte. Urte horretatik aurrera, Mertzadarien ardurapeko Zaharren Egoitzako kapelau lanak egin zituen, kapelau izendatua ez izan arren. 1952an Gau gurtzaileen arima-zuzendari izendatu zuten eta; aitortza, gaixoreri egindako bisita eta familien dolue-

ORGANISTAK
HERRIAN

MODESTO AMUTXASTEGI
MIGEL SESMA
ROKE OSORO
HIPOLITO USABIAGA
TELESFORO CUENDE
JUAN ZUGASTI
JOSE MARI JUARISTI
ASCENSIO GURRUTXAGA
INES LANDERAS
PABLO ARRUABARRENA

(Miguel Olaizola eta Iñigo Alberdik ere sarri jo izan dute)

Ascensio Gurrutzaga Sorluzeko parrokiako organua jotzen.

tan emandako laguntasunean hamar-naka urtetan egindako ahalegina azpimarratzekoak dira.

Musika alderdiari dagokionez, Ascensio Sorluzen egindako lana egundakoa izan zen. P. Juaristi ordezkatzuz parrokiako organista izateaz gainera, parrokiako abesbatza ere lagundu zuen, Roke Trebiño, Migel eta Bizente Olaizola zuzendari izan ziren urteetan. Santa Anako konbentuan kantatzen zuten Mariaren Alaben abesbatza zuzendari ere izan zen eta Ezoziko Ama abesbatza sortzailer ere bai, beste sorluzetar batzuekin batera. Bethania izeneko parrokiako lokaletan solfeo eskolak eman zituen eta urterik urte, Santa Ageda bezperan kantatzen zuten kantari taldea zuzendu zuen. Sorluzeko Ametsa Ikastolako ume talde batzuen ahotsak hezitzen ere lagundu zuen eta Blue Bells taldekoen entsaio batzutan ere bai. Gainera, Allegroko otxotea ere zuzendu zuen. Hainbat kantu moldatzeaz gainera Ezoziko Amari eskeinitako ereserki bat ere konposatu zuen.

Ascensioekin harremana izan zutenek, urte zail haietan Apaizgoko lanean gaixoei eta fededunei eskeinitako zerbitzu nekazina gorestarekin batera, bere umiltasuna eta ontasuna azpimarratzen dituzte. Musikarenganako zuen zaletasuna, eta alor horretan organista nahiz musika laguntzaile modura herrian egin zuen lana ere ondo gogoratuko dute ezagutu zutenek.

Gaixotasun luze baten ostean, 2001eko abuztuaren 1ean hil zen Donostian. Goian bego!

GORALDU DAIGUN...

IÑIGO ALBERDI AMASORRAIN

Goraldu daigun...Musikarekiko daukadan lehenengo oroitzapena Santa Ageda bezperako bertso hauen ingurukoa da. Zeletako zubian behera, abesbatzako gizonak, eta erdian, denen zuzendari, Don Ascensio. Geroago musikaren inguruan topo egin genuen gehienetan; Ikastolan, Ezoziko Ama abesbatza hasierako urteetan, organoaren teklatu aurrean...bere garrantzia herri mailan erabatekoa izan da. Ez zen plaza gizona baina bai gizon zintzo, fin eta leiala. Organujole gisa, katedrale eta eliza handiagotara joateko aukera izan zuen baina beti esan zuen ezetz. Horrek ematen digu bere maila musikararen neurriaren berri. Maila horren erakusgarri dira Francisco Escudero konposagileak Don Ascensioaren konposaketa lanei eginiko zuzenketak; “brillante, francamente bueno..”

Apaiz bezala denok ezagutu genuen bere lana; parrokia, ospitala, gaixoak, aitorlekua, Gau Gurtza... Bere izaeraren erakusgarri, gogoratzen naiz, ospitaletik edo Santa Anatik parrokiara joateko beti bide ezkutuena aukeratzen zuela, Labe-Gaineko pasalekua.

Azkenengo urteetan ere berekin egoteko aukera izan nuen, eta zein ondo zaindua izan zen ikustekoa ere bai (Mari Carmen Olaizolari esker). Orain, Don Ascensio buruz ari garenean (merezitako oroigarri hontan, berandu bada ere), Santa Agedako koplak gogoratuz amaitu nahi nuke, herri guztia izenean esanez; eskerrak bihotz guztitik!



Ascensio, Aste Santuko prozesio baten buruan. Kantuan, ohikoa zuen moduan.

D. ASCENSIO GURRUTXAGA

J. IGNAZIO TELLETXEA

(Historialari eta apaiza.
Ascensioaren ikaskidea seminarioan.)

Bere heriotza oroigarria atera dut nere otoitz orduen liburutik. Bai, bera da, bera da, Nuarben jaioa 1918ko maiatzaren 5ean, Donostian zendu zen 2001eko abuztuaren lean, bizitzan oso zarata gutxi atera eta gero, ez bazen zoragarriro jotzen zuen organuaren turtiarena.

Ikaskide izan ginen, urtebetean Bergaran eta hamar Gasteizen, urte zail eta gosetearenetan (1940-1951). Xumea eta humila izan zen beti. Bere alorrik behinena ez zen Teologia, ezta Filosofia ere, organua baizik. Harritu egiten zituen Gasteizko Kontserbatorioko Seminario-ra etortzen ziren irakasleak, bai partitularik zailenak irakurtzeko zuen erreztasunagatik nahiz ejekutatzerako orduan erakusten zuen abildadeagatik. Guztiok gogoratzen ditugu igandetako Meza nagusietan eta jai handietan interpretatzen zituen Toccata eta fugak, sarrerak, Ofertorioak. Bach, Cesar Frank, Widor, Guilman...

Bere digitazioak bazuen zerbait mekanikotik. Eta hau diot, azterketa garai-ko arratsalde baten, jolas orduetan pianoa zegoen gelatik melodia batzuk entzun genituelako. Atea zabaldu genuenean, Axentxio ikusi genuen pianoan, testu liburua pianoaren atrilean zuela eta eskuak alde batera eta bestera erabiliz, mekanikoki interpretatuz arpegiok... irakurtzen, ikasten eta errepasatzen zuen bitartean... Ikusi gintuenean, barre egin zuen berak zekien bezala.

*“Axentxio ikusi genuen,
testu liburua atrilean
zuela, ikasten eta jotzen.”*

Handik urte askotara, dagoeneko Soraluzen zegoela, herrian sartu nintzen Gasteizko seminarioan eskolak ematera nijoala, urte askoan ikusi gabe nengoen eta. Kalean galdetu nuen eta emakume on batek esan zidan seguruenik aitorlekuan izango zela. Halaxe zen hain zuzen. Han zegoen bera, argitxoa piztuta eta parrokiaren animarik ez zela. Disimuloz hurbildu nintzaion, burua jeitsiz belanikatu nintzen eta konfesatzen hasteko itxura egin nuen ohiko “Ave Maria purisima” rekin. Burua jaso eta ikusi ninduenean, hasi zen bere barre algarra. Organora igo zedin eta pixkatean neretzako jo zezan eskatu nion, aintzinako garaia gogoratu. Uko egin zion, organua hondatuta zegoela esanaz, teklak txirikordatu eta zintzilik gelditzen zirela...- Axentxio, hori oso geizki dago. Edo merezi duzun organua jartzen dizute, edo dagoen tokira eramant!- Gerora jakin dut bi alditan ekarri nahi izan zutela organista moduan Donostiako Artzai Onaren katedralera, Espainiako handienera. Baina berak ez zuen nahi izan. Humiltasunaren estatua zen eta askoz gustorago zegoen Soraluzen, naiz organu kaxkarra izan, beharbada amonaxo bat aitortzen edo gaixo bat bisitatzen edozein arratsalde ixiletan. “Zuk utzitako hutsunea, inork ez du beteko munduan”, dio heriotza oroigarriak, eta handik harrituta begiratzen du Axentxio onak.

BIZENTE OLAIZOLA

Ezoziko Ama
abesbatzako zuzendari ohia
“Oso pertsona ona zan eta organista moduan fuera de serie bat. Koruan eta kantu kontuetan urte askuan lagundu zeban Plazentzian. Abade moduan be bai. Goguan daukat behin zela esan zeban, nahixao zebala Plazentzian abarketekin ibili, Donostian tiriliakin baino.”

JOSE MARIA ZAPIRAIN

Seminarioko musika kapilako irakaslea

“Oso ona eta ixila zen. Organista ejekutatzaile aldetik perfektua, lehen mailakoa, nahiz ez zuen inprobisatzen. Neuk eskatu nion bi aldiz, Soraluzetik Donostiako Artzai Ona katedralera etortzeko, erreztasun guztiak emanda, baina ez zuen nahi izan. Bera Soraluzen zegoen gustura eta hantxe egon zen beti.”

LUIS MARIA SEGUROLA

1962tik 71ra Soraluzen apaiz izandakoa

“Beti on egiteko gizona zen. Nahiko bakarti bizitza suertatu zitzaion, klausurako monjen konbentuko kapilau egon zelako. Gogoan dut, organistarik ezagunenek nola esaten zuten, obrarik zailenak jo zitzaie beste inork ez bezala.”

PAKITA MINTEGI

Santa Anako monjen konbentuko superiora

“Harreman gutxi izaten genuen, gu orduan klausuran geunden eta. Berak meza ematen zigun. Oso gizon ona zen, eta oso adeitua. Ixila ere bai.”

Iñaki Iñurrietak Kuskue Tandem eleberria kaleratu du

Iñaki Iñurrieta (Soraluze, 1953) aspalditik dabil literatur munduan murgilduta. Kritika lanez gain, literatur itzultzaile moduan ere jardun izan du. Apirilean Kuskue tandem fikziozko eleberria kaleratu du Alberdania argitaletxearekin, nobelagintzarako pausoa emanez.

Aurkezpenean azaldu zuenez, duela hogeit hamar urte hasi zen nobela hau idatzi nahian, beka bat eman zioten gainera, baina ez zuen asmatu: "Orduan, pareta baten kontra jo nuen. Orain, berriz, gai sentitzen naiz istorioak idazteko. Paretak zulatzen ikasi dut".

Inazio Mujika Iraola editoreak honela aurkeztu du lana: "Urte askoan landutako lanarekin plazaratu zaigu Iñurrieta. Orain hogeit hamar urte Donostiako ikasle-pisu batean dauden mutilak dira protagonista. Ez da garbi adierazten, baina suma daiteke 80ko hamarkada hasiera dela. Ez da ekintza-liburua. Erreflesio eta gogoetatik asko du, dena teorizatu behar batean bizi baitira gazte horiek. Baina batez ere umorea dago liburu honetan. Erreflesio serioak daude, baina beti umorezko begirada xamurrekin.



"Orain gai sentitzen naiz istorioak idazteko. Pareta zulatzen ikasi dut."

Oteizaren Quosque tandem-ek bezala, gazteok zerbait esplikatuko nahi digute, baina umorea erabilita. Idazle on bat irabazi dugu Iñaki Iñurrieta-rekin".

Iñaki Filologia Erromanikoan eta Kazetaritzan lizentziatua da eta gaur

Iñaki Iñurrieta idazlea.

egun Donostia Kultura Patronatuan dihardu lanean. Itzultzaile moduan egindako jardunean honako obrak euskaratu ditu, besteak beste: Zekale artean harrapatuta (J.D. Salinger); Eskerregite eguneko bisitaria (T. Capote); Hau ez da ipuina (D. Diderot); eta Legeen espirituz (Montesquieu). Etorkizunean ere, idazten eta nobelagintzan jarraitzeko asmoa duela esan digu. Hala izan dadila!



Udaletxeko batzar aretoan bildu ziren, herriko eta auzoetako jaietako antolatzaileak Udaleko Kultura Batzordeburuarekin.

Santa Ana Jaietako batzordearen lehen bilera 21ean

Joan zen apirilaren 6an egin zen, auzoetako eta herriko aurtengo jaien antolaketa-erako lehen bilera Udaletxean.. Udaleko ordezkariak gain, San Andres auzoko, elkarte gastronomiko, tanborrada, musika eskola eta euskalgintzako ordezkariak ere batu ziren. Jai eta ekitaldi ezberdinei dagokien harreta eskeintzeko hiru bilera ezberdin egiteko erabakia hartu zuten. Tanborradaren antolakuntza lantzeko apirilaren 20an batuko dira 20:00etan, Auzoetako Jaien bilera 21an izango 19:00etan eta Santiago-Santa Ana Jaietako Batzordea 21ean elkartuko da. Egun horietarako aurkeztu behar dira proposamenak.batzordeetan.

EDURTZA Kafetegia
Taberna eta jatetxe zerbitzua



Eguneroko
menua eta
pintxoak

Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze

LAUDIN
PROIEKTU ETA DISEINU INDUSTRIALA

Industrialdea, z/g tf: 943752150
138 Postakutxa Faxa: 943752118

SORALUZE

Arantza Gabilondo liburuzaina

“Nere ilusiñua litzake, liburutegi edar bat izatia herrixan, herri honek merezi dau!”

Arantza Gabilondok 22 urte egin ditu liburuzain lanetan, hil honetan bertan jubilaria hartu duen arte. Liburutegia Udaletxean (gaur egungo Bake Epaitegian) zegoela hartu zuen liburutegiaren ardura eta lehenengo bi hiru urteak bertan egin zituen. Gero, liburutegia Kiroldegira pasatu zuten eta hura paradisua iruditu zitzaion aurrekoaren aldean. Irakurtzea beti izan du gustoko eta liburutegian, irakurritakoa jendearen zerbitzura jartzeko aukera izan du. Horregatik, liburutegiko lana oso gustoko izan duela adierazi digu eta faltan botako duela, batez ere irakurleekiko harremana. Azkenengo egunean, umerik bihurrexek ere eskeini zioten agurra, atean “Agur Arantza” zioten marrazkiak jarrita.



Arantza Gabilondo bere etxeko egongelan.

Zer moduz funtzionatzen dau liburutegixak?

Oso ondo. Soralezko liburutegixan etxerako maileguen kontuak oso ondo funtzionatzen dau. Jentia liburu asko eruaten ditu etxera. Danetik irakurtzen da. Nere ilusiñua litzake, liburutegi edar bat izatia herrixan, herri honek merezi dau eta. Eta seguru, ganorazko liburutegi bat jarriko balitz askoz jente gehiago jango litzakela.

Azpiegitura aldetik zela dago?

Oin hogeitaz urte oso liburutegi edarra izan zan eta oin be liburu aldetik oso hondare polita dauka eta asko ekartzen da. Baina hogeitaz urteotan zihar aldaketa haundixak sartu dira liburutegixetan; informatizazioa, espazioaren antolaketak... baina herriko liburutegixan ez da bape berrikuntzarik egin. Egin zan oso plan edar bat, ordenadore gela eta sarriera itsusi hori eraberritzeko, zai egon ginan baina paperetan gelditu zan. Oin ez dakit zer asmo dagan. Fisikoki oso txiki gelditu da. Ikastera etortzen dan jentia ixiltasuna bihar dau eta espazio

“Plazentzian badago kulturarenganako gogua eta mugimendua baina azpiegiturarik ez.”

egoki bat, umien zaratak apartauta.

Udaletik faltan bota dot herriko kultura alorrarenganako ardura minimo bat, batez be liburutegixanganako. Herriko kultura kontuetan ilusiñuakin lana egingo daben zinegotzi bat bihar da, kulturaren alde egiteko borrokatuko dabena Udalian. Kiroldegiko Kultur Etxia lotsagarri dago. Eta Plazentzian badago kulturarenganako gogua eta mugimendua baina azpiegiturarik ez.

Maileguekin arazo asko?

Ez. Jentia oso ondo portatzen da. Gainera, hainbeste urtian ibilita ondo ezagutzen dozu jentia eta badakizu zeini laga eruaten hiru liburu eta zeini ez. Behin eta berriz erreklamatu eta galdutzat emon bihar izan diranak be izan dira baina tira, dagan mugimendurako oso liburu gutxi galtzen dira.

Lehen baino gehiago irakurtzen da? gaztiak esaterako?

Zaletu batzuk egoten dira eta beste batzuk eskolan agindutakua bakarrik irakurtzen dabe. Prozesu hori ikusten dozu, umetan irakurtzen zela doian, eta gero nobelara... Gehikuntza haundirik ez dau euki. Liburutegixak beti euki dau martxa oso politta eta egonkorra. Askok irakurtzen dabenandako liburutegixa zerbitzu haundixa da, bestela diru asko gastatu bihar da.

Eta euskeraz?

Ez. Produzidu izugarri baina irakurri ez. Eskolan bialdutakua bakarrik irakurtzen da euskeraz. Euskeraz ikasi dabena be gaztelerara pasatzen dira.

Anekdotarik badaukazu goguan?

Sartu nintzan lehenengo egunetako baten ume bat etorri jatan eta... eskatu zotan; “santu baten biografia egitia nahi dot!”. Eta esan notsan; “San Inazio, edo San Frantzisko Jabier edo?” eta berak; “ez,ez! Cristobal Colon edo...”. Betiko geratu jata goguan.



HNOS. BENITO ANAIAK

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)



FER. S.A. Industriak

Eskulanetarako tresnak

Industrialadea, 17 - 20590 Soralueze
Tlfonoa: 943 75 20 00 Faxa: 943 75 19 80 E-maila: fer@nexo.es

Pilota

Atxotegi eta Varela txapeldun

Aitor Atxotegi eta Varela soraluzetar pelotari gazteek, kadete mailako Gipuzkoako Udaberri Txapelketa irabazi berri dute. Finalera bitarteko 10 partiduetatik 9 irabazi eta gero, apirilaren 4an Altzoko bikotearen aurka Ikaztegietan jokatu zuten finala. 22 eta 13ko emaitzaz gailendu zen soraluzetar bikotea finalean eta honenbestez txapelketa irabaztea lortu.

Bestalde, Aitor Atxotegik Deba Ibarreko Bikotekako Txapelketa jokatzen dihardu Eskoriatzako Aspe bikotekidearekin batera. Orainarte jokatutako hiru partidua irabazi ostean, datorren asteartean bergararren kontra jokatuko dute Bergaran. Lau terdiko ETB Kantxa Txapelketan ere parte hartuko du Aitorrek, datorren ostiralean Soraluzen bertan.



Varela eta Atxotegi Udaberri Txapelketako garaikurra aurrean dutela Ikaztegietakako frontoian.

Bola jokua



Elgoibartarrak nagusi Txurrukan eta Ezozin

Elgoibartarrak izan dira garaile Txurrukako eta Ezoziko bolatokietan jokatutako Hiru Txirlo Txapelketako bi kanporaketetan. Txurrukan 8 txirlo botata irabazi zuen Iñigo Loiolak eta Ezozin 5ekin Imanol Osorok. Guztira 15 talde inguruk partehartzen dute txapelketan eta elgoibartarrak daude lehen postuan, Soraluzetarrak 5.

LABURREAN

Emaitzak

Futbola

-Apirilaren 4an -
Soraluze 1 - Intxurre 1 (Erre.)
Bergara 2 - Soraluze 3 (Juben.)
SORALUZE - (Kadet.)

- Apirilaren 15ean -
Eibar 5 - SORALUZE 2 (Kadet.)

Esku pilota

Haritz Laskurain
- Apirilaren 18an Eibarren -

Otaegi - Laskurain 13
Baleztena - Zubieta 22

Berriz ere min hartu zuen eskuetan eta aste batzuetan partidurik jokatu gabe egon beharko du.

AGENDA

Esku pilota, Soraluzen

Apirilaren 23an Atxotegik ETB kantxako partidua jokatuko du.

Gipuzkoako Bola Txapelketa

Apirilaren 24an Asola-Berrin (Eibar)

Mendi Taldea

Apirilaren 25ean, Jaizkibelera (545 metro) joateko irteera antolatu da, Trintxerpetik Guadalupera.

Futbola, apirilaren 25ean

Zumaiako - SORALUZE (Erre.)
Behobia - SORALUZE (Juben.)
SORALUZE - Eibartarrak (Kadet.)



kutxa

gizarte ekintza

ARRANO

tabernia

Telefonoa 75 24 09

“Giro euskalduna eta sanua”

ETORRI ETA GOZATU



ETXERA
EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK



MENDIZABAL

OKINDEGIA

Kalebarren,10
Telefonoa 943 75 20 91
Baltegieta, 6
Telefonoa 943 75 13 99
SORALUZE



Jose Antonio S.L.

igeltzeritza

Gabolatz, 19 - Telefonoa 943 75 11 14 - 943 75 24 49
20590 SORALUZE (Gipuzkoa)

Maite Domingez

Mutil danak plasta batzuk dira.

Oporrak amaittu dira askondako, baina gaztetxuak oindio jai dakenez euretako bati galderak egittia erabaki dogu. Holaxe aurkittu dogu Maite, beste bi lagunekin barriketan lasai asko. Dana dala, Maitek oporrekin nahiko aspertuta daguala esan dosku, itxura danez, oporrek luziegixak egin jakoz. Aprobetxatu geratzen jatzuzen egunak, eskolak segituan hasiko jatzuz eta.

Izena, abizena ta kurtsua.

Maite Domingez naiz eta 6. mailan nago.

Ze ikasgai gustatzen jatzu gehixen?

Plastika, bestiak aspergarrixak dira eta. Soinketa be gustatzen jata, oso ondo pasatzen dogulako.

Bapo geratzeko menua.

Entsaladia tomate eta atunakin, okelian lasagna eta postrerako txokolatezko moussaea.

Egun baterako planik onena?

Kuadrilako danak nere Errioxara juatia. Familixakuok etxia daukagu hango herri baten, Santurden.

Zer miresten dozu?

Lagunen laguna eta jatorra izatia.

Eta zer ezin dozu jasan?

Esaten dotena behin eta berriz errepikatzen dabenak eta, gainera, belarrira txilixoka ibiltzen diranak.

Mutil kontutan...

Mutil danak plasta batzuk dira.

Zer jarriko zotsazun Soraluzei?

Zinia, jolas-areto bat eta bolatokixa...

Aste Santuko oporretan norabait juan zara?

Nojan egon naiz ta gero egun bat Errioxan. Oin herrira bueltauta, pixkat aspertuta nago, ze lagun gehixenak kanpua dare eta hemenez dago inor.

Orduan eskolak hasteko desiatzen egongo zara, ezta?

Ez! Nahixago dot oporretan egotia klaserara juatia baino.

Ikastolatik urtendakuan zer egitten dozu?

Lehenengo etxekolanak eta gero lagunekin urten, bestela lanak gabian egin bihar izaten dittut. Horretaz gain, musika, trikitixa, banda eta inglesian nabil.

Noiz hasi zinan trikitixan?



Bertso Begiz

*Kalian zihar topatu dogu
lagunekin barriketan,
lagunik barik daguala ta
aspertu da oporretan.
Ta mutil kontuetan?
"ondiok ez kezketan
astunak dira benetan!"
zuk emon "zapla!" bil durrik barik
deskuidatzen diranetan.*

Neko

(Doinua: Iparragirre abila dela)

Maite Rodrigez

Oin dala 5 urte. Hasieran soinu haundia aukeratu neban, baina nerretzat pisutsuegixa zanez trikitixara pasatu nintzan.

Gustoko trilitilariren batzuk?

Ointxe ez jata bat bera be okurrizten, baina gehixen gustatzen jatan musika taldia Ken 7 da.

Despedida moduan txiste bat?

Badoiaz hiru lagun eta geino bat agertzen jakue eta bakoitzari desio bat eskeintzen dotse. Lehenenguk, Gabonetan familia dana elkartzia eskatzen dau. Bigarrenak, neska lagunatopatzia. Eta hirugarrenan txandia heltzen danian, zera esaten dotsa genixuari: nere desiua da, nere bi lagunak berreskuratzia!



Lakuesta

Optika

Ikusmen arazozen frogak eta argibideak

Argazkiak errebelatzen ditugu

Santa Ana, 22 C- behea
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 30 59

GAZTELUPE
taberna

tel: 943 75 20 81



Argazki zaharra



SAPA armaginen unibertsitate

Kañoi Fabrika izenakin ezagunagua izan da herrixan SAPA lantegixa. Gerra osteko urtietan be lantegi indartsua izan zan SAPA. Ehundaka gaztek bertan ikasten zeben ofiziuua. Orduan eskuz lan gehiago egiten zan eta SAPA, lantoki izateaz gainera, eskulangintzako unibertsitatia be bazan. Argazkixan, hainbat armagin azaltzen dira; bestiak beste diseinuan eta dornuko lanetan diharduela.

Iturria: Victor Trebiño

Lehiaketa

Zer dago faltan edo zer soberan argazki honetan?



*Iñaki Iñurrietaren
Kuskue Tanden
liburua irabazi zeinke!!*

DEITTU

943 75 13 04 ra

erantzuna...: Mallabia
(Debarreneko herri altuena)

...eta irabazlea:
Ez du inork asmatu.



PASCUAL CHURRUGA, S.A.

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461
E-mail: general@pascualchurruga.com
Errekalde 21 20590 SORALUZE

**ARMENDIA
JATETxea**



Ezoz Auzoa, 11
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 10 02

Sukaldaritza tradizionala

Urrats dantza-taldea eta
Pil-Pileanen eskutik:

Larrain-dantza ikastaroa




IZENA EMAN:
Gila, Arrano,
Iratxo gozodenda
edo Pil-Pilean.

ENTSAIOAK:
Maiatzean zehar,
Ekainaren 4tik 13ra
luzatuko diren Euskal
Jaietan dantza egitea
izango litzateke
helburua.



SORALUCE

Fresaketa teknologia



SORALUCE
GRUPO DANOBAT

SORALUCE S.Coop. • Osintxu auzoa • P.O.Box. 90 • E-20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Tel. +34 943 769076 • Fax: +34 943 765128 • Web: www.soraluce.com

OITXURRI

tel. 605768151
GABOLATZ
28 BEHEA



**ARDORIK ONENAK
OITXURRIRENAK!**

urteko ardoak - 2 € tik aurrera
Balagu
BASOCO
mitarte
f. fdez gomez



kriantzak - 4,50 € tik aurrera
h. de don tomas
solaguen
valserrano
pierola

erreserbak - 9,50 € tik aurrera
valserrano
solaguen
pierola

EZOZIA JATETXEA

Zatoz eta gozatu
gure jakiak!



EZOZI jatetxean bazkari eta afaririk
ederrenak preziorik onenean.

Eguneroko menua
eta aukera zabala kartara.

Ezoz Auzoa Tel: 943 751001 SORALUZE